

## EDITORIALA

### Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

52. zenbakia aurkezteko aukera heldu da. Gaiez diziplina artekoa da beste behin ere. Itsas ekonomiaren historia zertan dagoen Euskal Herriko historiografian gogoeta eta eztabaida egitera dator lehen artikulua. Bigarrena, *Citizen Kane* filma ospetsua aitzakia harturik, hedabideak eta boterearen inguruko gaia ikuspegi psikosozialetik aztertzerazuzendua dago. Hirugarrena unibertsitate-giroan pil-pilean dagoen kreditu europarrerantz hurbiltzeko bidean dauden oztopoak eta erronkak seinalatzeraz dator. Psikologiako ikasketen neurrian egiten bada ere, eredu izan daiteke gainerako jakintza-arloetan egin beharra dagoen baliokidetasuna lantzeko orduan. Laugarrena, hezkuntzaren helburu zibikoak eta nazionalak Euskal Herriko erakunde abertzaleen esanetan nolakoak diren agertzerazuzendua dago. Amaitzeko liburu berrien aurkezpen-kritika ere bizirik ageri zaigu.

Ohiko aurkezpen-laburpenetara igaroko gara. “Aro Berriko Euskal Herriko itsas ekonomiaren historiaren egoera” lanak denbora eta espazio nahiko zehatzetan garatutako gertakariak ditu ikergai. Euskal Herri osoko ekonomiaren historiak aritu arren, kronologikoki Aro Berrira mugatuko da. Definizio beharra azpimarratzen da hasiera-hasieratik. Bereizi ote liteke itsas ekonomia ekonomia orokorretik? Existitzen al da lehorreko ekonomiatik at garatzen den itsas ekonomiarik? “Ez, noski” biribilaz ihardesten da. Hala ere, aldarrikatu beharrekoa da itsas ekonomia bereizi, ez independente, baten existentzia. Are gehiago, Euskal Herriko itsas ekonomiaren historia baten garapena posible ez ezik, behar-beharrezko ikerlantzat aldarrikatzen da euskal historiografiak benetan aurrera egitea nahi badin badugu. Kontua da azken hogeita hamar urte hauetan jarduera konkretu batzuen historiaren ikerketan aurrerapen azpimarragarriak egin izan badira ere, oraino hutsune eta eginbehar asko geratzen dela egiteke. Agirreazkuenagak orain bi urte adierazi zuen, duela zortzi urteko *Itsas Memoria* aldizkariko lehen zenbakiak eta orain dela hogeita bat urteko Aingeru Zabalaren lanak ikusten zuten falta berbera, hau da, Euskal Herri osoko historiografiari begira bi egoera edo errealtate bereizten direla: Ipar Euskal Herriarena eta Hego Euskal Herriarena. Hala ere, Lapurdiko itsas ekonomiaren historiaren sintesi orokor eta bateratu batera iritsiak daudenean, aldiz, Hego Euskal Herrian sintesia egiteko beharrezkoak diren aurre ikerketak egiteke daude. Iparraldeko historiografiari falta zaizkion artean Euskal Herriko itsas ekonomiari bere osotasunean ez begiratzea litzateke, Frantziako estatuaren pean dagoen produkzio historiko izateak kentzen dion begirada, hain zuzen. Historiografia oso horretara igartzeko bi kontzeptu bateratzaile proposatzen dira: mugatasuna (egitura politikoen arteko muga) eta aniztasuna (bertatik hainbat herri pasatzen ikusi duen lekua izateak dakarrena). 60ko eta 70eko hamarkadetatik aurrera euskal historiografian jarraitutako berrikuntzak nora eraman gaituzten aipatzen da. Gainditu beharreko hutsuneak seinalatzean, garrantzi itzela ematen zaio XVII. mendeaz esaten den «iraupen luzeko krisialdi bat pairatu zuen euskal itsas ekonomiak» perpausari. Bestalde, ikerketa gehienak Bilbo eta Donostiari buruzkoak direla eta haien atzetik Debari buruzkoak daudela salatzen da. Behin puntu honetara ailegatuta, jorratu beharreko bideak aipatzen zaizkigu. Estrukturalismoaren

krisiak ondorio larriak sortu ditu: ekonomiaren historialari asko eta asko «kuantitatibismoan» erori izana. Horri egiten zaion kritikak dio «dokumentazioan aurki daitezkeen datu ukaezinak ez direla besterik gabe iraganeko benetako errealitateak edo “egia” berreraikitzeke gai». Historiarekin oso lotura estua izan dezaketen Astrofisi-ka bezalako zientzietatik asko ikasi beharra dagoela dio. Aldi berean, metodologiaren berrikuntzaren beharra seinatzen da. *Annales*eko eskolaren ametsak, «historia osoa» egitearenak, berriro eragin zuzena izan beharko luke. Berdin baliatu beharko da behar-beharrezko diziplina arteko harremanez. Gainera, euskal historiografian oso arriskutsua eta kaltegarria den «akademizismo unibertsitarioa» salatzen da. Aldarrikatzen da ere duela oso urte gutxi Ipar Amerikan sustraitu den «aurpegi aniztun historia» edo protagonisten ikuspuntu eta interesak, eta horien inguruko elkarren arteko gatazkak eta harremanak aztertzen saiatzen dena.

“*Citizen Kane*, hedabideak, boterea eta beren mugak” lana komunikagarritasunean eta inkomunikagarritasunean sakontzera dator. Hasiera beretik esaten zaigu ez zaizkigula lan honetan hainbeste axola filmaren arazo teknikoak. Benetan interesatzen zaiguna dela filmak mintzagai duena: boterea, bere handitasun eta miseriekin. Botere bortitza, auzitan jartzen denean bortizki erantzuten duen boterea, hain zuzen. XIX. mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako gizarte amerikarraren indarguneak, tentsioak eta joerak modu garaiezinean erakusteak egiten du film hau unibertsala, esaten zaigunez. Bere garaian gaizki ikusia eta madarikatua izan bazen ere, erroz berria den edozeini edo edozeri gertatzen zaion legez konprenitu behar da. Hots, gauzak begirada arrunt eta normalez begiratzeko ohitura zutenei, ekartzen zizkien zailtasunengatik. Gaizki ikusia, erregistro moralean, zeren normaltzat, ezaguntzat jasotzen zuena arau bihurtu baitzen, eta, ondorioz, arbuaiatu egiten baitzuen edozein berritasun tekniko, alterazioa edo transgresioa zekarrelako. Horregatik estreinatu eta hamarkada batzuk beranduago iritsi zen jendartera. *Citizen Kane*-k bi zati bereizi ditu. Lehen erreportajearen egitura albisteen kronologia da. Bigarren zatiak Kane handikiaren bizitzari buruz lehen zatian emandako informazio-nukleoak zabaldu, sakondu eta osatzen ditu. Komunikazio-prozesu masiboen izaera miatzen da: gertatutako zeraren berri eman dezakete, bai, baina ezin dute argitu *nor* zein den, nolakoa den eta zergatik egin duen egindakoa. Komunikatzaileak bere egitekoa dauka. Hau da, objektuaz mintza daiteke, baina ez subjektuaz. Masa-komunikabideek gertatutakoa objektibatu besterik ezin dute egin, bai gertakariei badagokie, zein pertsoneri. Komunikatzaileak bere egitekoa txukun betetzeko baliatuko dituen errekurtsioak dira: konparazioa, zenbaketa, analisisa eta metonimia. Eta dena ixteko identifikazioa. Masa-komunikazioetako prozesuen indarra eta ahulezia dira: informazio orokorra, axalekoa, berritasun gutxikoa, iraunkortasun laburrekoa eta ondorio eskasekoa. Heda daitekeen bakarra kantitatea da, objektiboa, kanpoko, zera; eta ez kalitate, subjektiboa, barrukoa, nortasuna. Horson Welles-ek oso zehatz adierazten du iritziaren balioa. Hala ere, iritzien erresumak ez dauka gaitasunik nortasunera hurbiltzeko. Adibidez, ezer ez zaigu esaten Kane-k bi emazteekin izandako maitasun-harremanez. Kanpotiko adierazpenen bitartez informatzen zaigu arazo juridikoak, legalak, hots, metonimikoak nabarmenduz: ezkontza eta dibortzioa. Berdin gertatzen da nahikeria politikoen porrotarekin. Bigarren erreportajea egiteko erabakia hartzen da. Lehenengoa ez bezala, bigarrena barnetiko erreportajea dela esan genezake. Helburua da handikiarekin harremana izan zuten guztiak

elkarrizketatuz eta interpelatuz, *Rosebud* izeneko enigma argitzea eta, horrela, Kane-ren benetako nortasuna aditzera ematea. Kane-ri buruzko ikuspuntu desberdinak, indarrean dagoen pentsamendu eta ideologiaren arabera haren nortasunarekiko ahalik eta hurbilpen handienak dira. Guk, aldiz, uste dugu bi erreportajeen artean itxuraz osagarritasuna dagoela, baina egiaz disimetria. Elkarrizketatu bakoitzaren bertsioak baino ez dira, bakoitzaren kokapen subjektiboaren arabera emanak. Thatcher-entzat ez bezala, dirua ez dela dena Kane-rentzat ageri da. Berstein-ek gainbalioa ematen dio nagusiari. Eta berehala esaten zaiguna hau da: norbait koldarra, sumisoa, ustez gutxietsia eta azpibaliotsua delako ematen zaiola gainbalioa beste bati. Leland-en ustez, Kane-rekiko harremana ez zen adiskideen artekoa izan, ez baitzegoen berdintasunik, ez errespeturik. Susan Alexander «publiko amerikarraren ordezkari jatorra» da: manipulagarria, moldakorra, eragiten erraza, sineskorra, sinplea, ahula eta sumisoa. Sakon-sakonean botereak egiten ditu mass-medietako hartzaileak. Leland, Kane-ren aurrean larri dagoenean mozkortzen da. Superegoaren erreakzioen beldur, edarian bilatzen du hari aurre egiteko behar duen kemena. Aipatzekoak dira Kane-k dituen herriari buruzko iritzi soziologikoa eta langilea, kategoria politikoa, alde banatan emanaz. Gogoratzen zaigu benetako maitasuna maitatua izan gabe ere maitatzean datzala. Boteretsua despota, berekoia, urruntzen dena eta bakardadezalea da. Osoa, osotasuna, ez da existitzen, beti dagoelako «izan ezik» bat. Eta zer den angustiak menderatutako prozesua, eta zer den, kemenaren bitartez, justiziara igarotzea. Amore ematen duen pertsona, derrotaturik itzultzen da irten nahi izandako injustiziara. Jokabide desesperatuaren benetako erantzulearen kontrako salaketa isila da suizidioa, azken mendeku bat bezala. Eta zer ote da *Rosebud*? Edozein maisulanari ihes egiten dion metafora moduko zerbait da. Hitz enigmatikoa bezain agortezina.

“Kreditu europarrerantz hurbiltzeko eredu estatistikoa. Psikologiako ikasketak aztergai” lanak Europar Batasuneko titulazioen baliokidetasunak gure unibertsitate-jarduerari dakartzkien aldaketak edo errekerimenduak plazaratzen ditu. Europar Batasuneko kredituen baliokidetasunak helburu bikoitza dakar. Batetik, estatuetarako oinarritzko titulazio-mapa ezartzea. Bestetik, ikasleen mugikortasuna areagotzea. Hala ere, ez dago araudi finkorik. Horrek esan nahi du unibertsitate bakoitzeko lanek eta ekarpenek garrantzi berezia daukatela. Garbi dago, bada, Europar Batasuneko unibertsitateak ikasleen beharrezanetan erroturiko unibertsitate izan behar duela. Lan honetan UPV/EHUko Psikologia Fakultateko ikasketak gaurko sistematik biharko ECTS kreditu-sistemara egokitzeak dakartzan aldaketak seinalatzen dira. Horretarako egutegi akademikoa aztertzen da, hasteko. Kurtso bakoitzeko ikasleak 1600 ikas/lan ordu eman beharko ditu, batez beste 40 ordu asteko. Gaurko Psikologia Fakultatean 2004-2005 ikasturteko egutegi akademikoa kontuan hartuz, diferentzia txiki bat eskas ateratzen zaigu ECTS kredituen egutegi akademikoan osoki sartzeko. Ondotik, Psikologia ikasketetako lehenengo kurtsoaren azterketara igarotzen da. Irakasgai guztiak nahitaezkoak dira. Eta baldintza horrek lehen hurbilketarako erraztasuna dakar. Zenbait ondorio atera daiteke. Oraingo kreditu-kopuruaren aldaketa aurrez aurreko eskolen eta ikasleen berezko jardueren arabera, eta teoriaren eta praktikaren arteko ratioa kalkulatu da. Oro har, praktika-ordu bakoitzeko ikasleak teoriarako halako bi jasotzen dituela. Gero azterketa-deialdiek daukaten ordu-kopurua dago. Azpimarragarria da indarrean

dagoen ereduan aurrez aurreko eskolek daukaten pisua eta garrantzia. ECTS eredurako egokitzapena lortzeko aurreneko urratsa litzateke, bada, egutegi akademikoaren doikuntza egitea. Guztiz doitzeko, 1582 ordutik 1600 ordura igaroaz. Bestalde, ikasleen jarduerak izango dira aurrerantzean ikasturte akademikoaren egituraren ardatza. Eta horrek, jakina, eragin esanguratsuak ekarriko ditu irakasleen dedikazioan, lan-banaketan eta, oro har, antolakuntza akademikoan. Psikologia titulazioko irakasgaien egokitzapena kreditu-kopuruaren arabera aztertzea igaroaz, argi dago irakasgaien oraingo kredituak zenbat eta gehiago izan, orduan eta handiagoa dela ECTS motako kredituetan murrizketa. Psikologia ikasketen osotasunezko azterketak, berriz, aurreneko ezaugarri bezala, guztirako kredituen banaketa uniformeaz ez izatea agerian uzten du. Eta hori, printzipioz, ezin gerta daiteke ECTS motako kredituekin. Hautazko kredituen arazoa ere nabarmentzen da. ECTS eredura egokitzeotan, gaur egun dagoen irakaskuntza-kargatik %33 ezin eman liteke. Argi dago ere, ECTS ereduan, antolakuntzaren alderdi formalak, bete beharreko ordu-kopuruak eta jarduera akademikoaren eraketa, oro har, askoz hertsia izango direla.

“Hezkuntzaren helburu zibikoak eta nazionalak Euskal Herriko erakunde abertzaleen esanean” lanak euskal nazionalismoak duen hezkuntza-diskurtso liberala agertu eta, aldi berean, erakusten digu hezkuntza nazionala nabarmen gailentzen zaiola hezkuntza zibikoari. Artikuluak erakunde abertzaleen hitzei emango die protagonismo nagusia. Nazio etnikoak (inkludenteak dira ezaugarri etnikoak dituzten biztanleekin, baina, eskluenteak ez dituztenekin) eta nazio zibikoak (biztanle guztiak dira herrikide eta naziokide) bereizten dira. Baita naziotasuna eta herritartasuna ere. Horrela, eredu zibikoak estatua duenean arrisku bat dauka: halabeharrez eta gogoaren kontra ere estatu horren naziotasuna eta herritartasuna onararazi beharra. Hizkuntza ezaugarri etnikotzat jotzen da, baina, zibiko ere bilakatzen da. Dualtasun bat darama horrek. Integraztailetzat jotzen da kanpotik datorrenari komunitate berrian sartzea ahalbidetzen dionean. Aldiz, hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen den lurraldean hizkuntza horietako bat inposatzea edo, faktore diskriminatzailetzat joko da. Etnia eta hizkuntza izan dira euskal nazionalismoaren identifikazio-modu nagusiak. Gaur egungo euskal nazionalismoa, hala ere, lurralde eta borondatearen gainean mugitzen da, erdaldun izatea gainditu ezinik. Euskal nazionalismoak, hortaz, izaera etnikoa eta zibikoa batzen ditu. Bestalde, kultura-aniztasuna onartu eta errespetatzen du, eta euskal kultura lurralde osora zabaldu nahi du. Hezkuntza eta nazionalismoari dagokionez, alde batetik nazio-historia gurtzea, nazio-hizkuntza bilakaztea eta tradizioak gorai-patzea leudeke, eta bestetik, zibikotasunari jarraiki, estatuarekiko leialtasuna, legoke. Hiru tentsiogune antzeman daitezke: nazio-autonomia versus nazio-identitatea; hezkuntza unibertsala versus hezkuntza nazionala, eta kultura-aniztasuna versus homogeneotasuna. Hezkuntzaren helburuak aipatzen dira ondoren. Euskal nazionalismoaren hezkuntza diskurtsoaren osagai nagusia euskara izan da. Ikastolei zuzendutako erasoak beste guztien gainetik nabarmentzen da, ikastetxe horiek adierazpen sinboliko eskerga dutelako, noski. Erakunde abertzale guztiek harreman estu-estuan jartzen dituzte hezkuntza eta euskal nazioaren eraikuntza. Euskal identitatea helarazi behar die ikasleei. Euskal Herrian bizi direla eta etorkizun komun bat dutela ohartarazi behar die haurrei. Ezagutzera eta maitatzera eraman behar ditu. Hala ere, onartzen da, hezkuntzaren helburua herritarrak egitea baino

gehiago pertsonak eraikitzea dela. Herritartasuna gogoan dute. Herritartasuna eta euskalduntasuna bereiztearen aurrean egonezina sumatzen da. Baliorik aipatuena tolerantzia da. Euskal kulturaren osagai nagusiak eduki propioak lirateke: geografia, historia, literatura eta abar. Euskal curriculumean euskal kultura da funtsezko osagaia eta, euskara hizkuntza nagusia litzateke. Euskal Herriko hezkuntza-sistemak etorkinen jatorrizko kulturei begira behar duen jarrera aipatzean, aniztasuna, kulturen arteko harremanen onuragarritasuna eta abar seinalatzen dira. Etorkin guztiak euskaldundu beharko lirateke, noski. Etorkinek, beren aldetik, euren jatorrizko kultura eta hizkuntza ezagutzeko eta lantzeko eskubidea dutela aitortzen da. Erakunde abertzaleak ez dira bereziki kezkatzen arrotzek ekar ditzaketan arazo moral, erlijioso eta abarrekin. Baina nabaria da ez dutela *aingeruzko kultura-aniztasunean* sinesten. Integratu egin behar direla edo herri honetako partaide bihurtu behar direla esaten da. Azken funtsean, euskal nazionalismoaren hezkuntza-diskurtsoak ikuspegi liberalari jarraitzen dio gai honetan. Hautu indibiduala eta pentsamendu-askatasuna baliotzat goraiatzen dira. Aldiz, estatuak izaera integratzailea ematen diote euren hizkuntzari eta izaera baztertzalea leporatzen diote estaturik gabeko nazioek bultzatzen dutenari. Kulturari dagokionez, oso kontziente dira euskal gizartearen aniztasun kulturalaz, eta hori dela eta, ordezkari abertzale gehienek zeregin gutxi eransten diote hezkuntza-sistemari. Euskal mugimendu abertzalea, oro har, erne agertzen da kultura-aniztasunak euskal kulturari ekar diezaiokeen kalteaz.

